




Europa Cantat Gasteizen



Gaur izango da Europa Cantaten azken eguna Gasteizen.

JOSE SIMAL

Gasteizek Danimarkako Herning hiriarri utziko dio gaur lekukoa

L.K.G. / GASTEIZ

Gaur bukatuko da Gasteizko XI Europa Cantat eta gaur izendatuko dute Herning (Danimarka) hurrengo Europa Cantateko egoitza. Hamar egunez, munduan diren puntako abesbatzak Gasteiza ekarri dituen festibalak azkeneko ekitaldiei ekingo die gaur goizeko 10etatik aurrera programatu diren zenbait ikuskari-ekin.

Jesus Obrero eta San Miguel elizak eta Gasteizko Apeztegia izango dira goizeko 10etako kontzertuen eszenatoki. Araba Pabilioira abiatuko da interesgunea eguerdian, hama-bost minutuko kantu bateratu batez. Amaiera ekitaldia Verdi konposagilearen 'Te Deum' obrari ekingo dion Espainiako Gazte Orkestra Nazionalari (JONDE) esker gauzatuko du-

te. Halfterren 'Dona Nobis Pacem', edo Marcel Corneloupek esan bezala, «bakerako kantu» batekin amaituko da XI Europa Cantat.

Azken kantu honen aurretik, Jose Angel Cuerda alkateak eta Marcel Corneloup Europa Cantateko lehendakariak mintzaldi bana egingo dute, eta Herning izendatuko dute 1994eko Europa Cantateko sede. Corneloupek atzo esan zuenez, «antolakuntza eta azpiegituren aldetik behar bezalako baldintzak betetzen dituen hiria» da Herning. Dirulaguntzak aurkitzen egon liteke arazo bakarra Corneloupen uestez, baina lortuko dituztelakoan dago.

Gasteizko festibalaren aurrekontuari dagokionez, «lanean ibili den kudeaketa taldea» azpimarratu zuen, arazorik ez dela egongo esplikatzerakoan.

Gasteizko Lehen Disko Azoka gaur izango da hotel batean

L.K.G. / GASTEIZ

Gasteiz Hotelean, goizeko 11etatik gaueko 9etara, Gasteizko I Disko Azoka egingo dute gaur, 'Happening Promocionesek' antolatuta. Azoka honetan, Espainia osoko dendetako mahaiak jarriko dituzte. Antolatzail-ee diotenez, «ohizko dendetan es- kuratzerik ez duten diskoak salgai egongo dira, hots, katalogotik kanpo dauden diskoak, aurreneko edizioak edo zuzenean grabaturikoak.

«Bereziki disko-biltzaileari zu- zenduriko piezak» batetik, eta noiz

behinkako erosleari begira bestetik, «eskaintza garrantzitsu batzuk» erakutsiko dituzte gaur Gasteizen, Donostian oraintsu Disko eta Compact Disc Azoka egin duten hauek.

Honez gainera, «dagoeneko ent- zuten ez dituzun diskoak saltzeko edo elkartrukatzeko aukera» izango da. Antolatzailleen ustetan, azpima- rragarria da compact discen arloan geroz ta gehiago garatzen ari den «biltzailearentzako merkatua, eta honek azoka honetan aniztasun han- dia zein salneurri txikiak izango di- tu».

Erakusketa arkeologiko ikusgarria paratu dute Orbaiztako arma olan

IRUNEA

Orbaiztako arma olako tresnak eta Zacarias Pellicerren zurezko lanak egonen dira gaur ikusgai Orbaiztan bertako Udalak eta Nafarroako Go- bernuak antolatu duten 'Campo Pi- rineo' programa kulturalaren barne. Antolatzail-ee adierazi dutenez, ez- pela zuraren balioak gora egin du eta Pirinioetako bailarata turismo kul-

turala erakarri da helburua. Atzo za- baldi zen erakusketa arkeologikoan lan kanpamenduetan dabilzan ira- kasleek arma olan aurkitu dituzten objektuak biltzen dira. Bereziki armak egiteko tresnak egonen dira ikusgai. Horretaz gain, Zacarias Pellice- rren 'Bizirik irauteko tresnak' bil- duma egun osoan ikusteko aukera izanen dute haraino hurbiltzen dire- nek.

Gaur gauean hasiko da Gasteizko Nazioarteko Folklore Jaialdia

Mundu osoko zazpi taldek dantza eta musika hurbilduko dituzte

Kultur eskaintza gehien eman duen hilabeteari amaiera emango dio gaur gauean Gasteizen hasiko den Nazioarteko Folklore Jaialdiak. Tibet, Brasil, Ukraina, Chile, Grecia, Jugoslavia eta Arabako ohiturazko dantza eta musikak azalduko dira asteazkenera arte.

LUIS KARLOS GARCIA / GASTEIZ

Euskal Herriko zenbait herritan azken egunotan ospatuz joan diren folklore jaialdien lekukoa hartuko du gaur Gasteizek. Gaur hasita eta uz- tailaren 31ra arte, gauero 10etatik aurrera, bost kontinenteetako aintzi- nako ohituraren erakustaldiak ikusi ahal izango dira. Beste urteetan be- zala, urrutiko ekitaldiek Araba or- dezkatzen duten ikuskariekin bat egingo dute. Aurtan, Indarra Dantza Taldeari dagokio eta jaialdiaren az- ken egunean 'Aintzinatik Gaur Egu- nera' obra taularatuko du.

Hala ere, ikusgarritasun osoz ha- siko da gaur gauean festibala, Tibe- teko Opera taldearen eskutik. Txina- ko errepresentazio artistikoen adibi- de da obra hamahiru zatitan banatzen duen talde hau. Duela hogeitamar urte pasatxo lanean hasi zen Tibe- teko Opera eta Gasteizera etorriko



Herri askotako taldeak etorriko dira festibalera egunotan.

dira 130 artistarekin. Ikuskariaren estiloa musika eta dantzan oinarri- tzen da, eta zenbait kasutan istorioan gertatzen dena kontalari batek ager- tzen du.

Gaurko egitarauaren bigarren osagarria Brasiletik dator, 'Acaua da Serra' taldearen bitartez. 1986ko maiatzean sortu zen talde hau Brasi- leko ipar-mendebaldekoa da eta ho- geitamalau dantzari eta musikarik osatzen dute. Poesia, musika, an- tzerki eta dantza herrikoiaren arteko arlo artistikoaren islada eskaintzen dute, ikuskaria zortzi zatitan bana- tuta.

UKRANIA, Bihar eta etzi Ukraina, **CHILE,** Chile, Grezia eta Ju- **GREZIA...** goslaviako taldeak ari- tuko dira Foru Plazan. Azken egune- rako, ia hogeit urte dituen Indarra Dantza Taldearen ikuskaria progra- matuko dute antolatzail-ee, taldeak estreineko aldiz eskainiko duena. «Deboraren poderioz belaunaldiz belaunaldi igorritz joan diren Euskal Herriko dantzak» agertuko dituen obra da. Indarra Euskal Arte Herri- koiaren Elkarteko sail guztiek har- tuko dute parte asteazkeneko obran eta Dantza Taldeak 45 dantzariren lana hurbilduko digu.

Txillidari buruzko liburu bat auzitan

BILBO

Berak 600.000 pezeta (30.000 li- bera inguru) eskatzen bazituen ere, Bizkaiko Aurrezki Kutxak 140.000 besterik ez dizkio eman beharko Kosme Barañano idazleari 'La obra artistica de Eduardo Chillida' libu- ruaren egile eskubideen ordain mo- duan; horretaz gain, hala ere, beste 200.000 pezeta eman beharko diz-

kio, ordezkaritza eta ikerketa gas- tuak ordaintzeko. Jose Manuel Sus- perregi argazkilariari, berriz, 556.640 pezeta ordaindu beharko dizkio Bizkaiko Aurrezki Kutxak, liburuan agertzen diren argazkien- gatik. Hala erabaki du Bilboko Auz- tegiko bostgarren sailak.

Liburuaren zuri-beltzeko edi- zioaren banaketa debekatu egin du Auzitegiak. Liburua 1988ko urtarri-

laren 27an argitaratu zen, eta bertan Susperregik jatorriz koloretan egi- ni- ko 71 argazki agertzen ziren zuri- beltzean, nahiz eta argazkilariak ho- rrelakorik ez zuela nahi esan. Peri- tuaren txostena ikusita, epaimahaiak erabaki du argazkilariari berak eska- tzen zuen kopurua ordaindu behar zaiola, baina Barañanori ukatu egin dizkio egile eskubideengatik eska- tzen zituen 600.000 pezetak.

TEATRO PRINCIPAL-ANTZOKI ZAHARRA

Gaur arratsaldeko 8-etan

PENTACION S.A.-k

aurkezten du

Rafael Alvarez "El Brujo"
"Lazarillo de Tormes"

Fernando Fernán Gómez-en bertsioa

Zuzendaritza: Rafael Alvarez y Juan Viadas

Iraupena: Ordu t'erdi inguru



Takilla orduak:
11'30-13'30 / 17'30-20'30
ANTZERKIDE tfnnoa. 48.11.55



Donostia Udalak
Ayuntamiento
de San Sebastián

KULTUR UDAL PATRONATUA
PATRONATO MUNICIPAL
DE CULTURA